




A watercolor illustration of a mountainous landscape. The sky is a mix of grey and white, with a bright yellow sun or light source in the upper left. The mountains are rendered in shades of grey and blue, with white patches representing snow or ice. The overall style is soft and painterly.

BALEAK IKUSI DITUT



JAVIER DE ISUSI

ASTIBERRI











ZERGATIK EGITEN DUT AMETS HAU?



JADA NAHIKOA IZAN EZ BANU MODUAN.



BIHAR DIRA HOGEITA BOST URTE ETA-K AITA HIL ZUELA.




HOGEITA BOST URTE EZ DIRA IZAN NAHIKOA, BULARREAN GERATU ZITZ AidAN ZULO A BETETZEKO.



ORDUAN, ZERGATIK EGITEN DUT AMETS HAU?




"BARKATZEN DIET", ESAN NUEN ORDUAN, ETA HEDABIDE CUZTIEK JASO ZITUZTEN APAIZGAI UMEZURTZ GAZTEAREN HITZAK.



BARKATZEN DIET...

ESAN NUEN, BI HITZ HORIEN GARRANTZIAZ BENETAN JABETU GABE.



BARKATZEN DIET...

ESAN NUEN, ETA URRUNEAN JOSU IKUSTEN NUEN.




NIK... BAKARTZEN DIET...

ULERTU EZINIK ZERCATIK, NIRE AITAREN EHORZKETAN, JOSU, NIRE LAGUNIK ONENA, EZ ZITZAIDAN HURBILTZEN.




NIK... BARKA...




ZERBAIT SUMATU NUEN, NONBAIT, HARI DEI EGITERA BULTZATU NINDUEN ZERBAIT. ALFERRIK IZAN ZEN. EZ ZIDAN ERANTZUN.

JOSU!




ASKOTAN GOCORATZEN DUT
ESZENA HURA. ETA EZ DAKIT
ZERGATIK, BAINA KANPOTIK
IKUSITA GOCORATZEN DUT.

OROMENEA,
NEURE BURUA
URRUNEAN IKUSTEN
DUT, BAKARRIK;
JOSUREN AURPEGIA,
ALDIZ, AURREZ
AURRE, BETILUN
ETA BURUMAKUR,
EURIPEAN.




EZ NUEN JOSU
BERRIRO IKUSI,
ETA URTE LUZEZ
OINAZETU NAU
PENTSATZEAK
ATENTATUAREKIN
ZERIKUSIRIK
IZAN ZEZAKEELA,
HORREK
OHARKABEKO
KONPLIZE
BIHURTUKO
BAININDUEN.




BAINA EZ.
ORDURAKO
ETA-N EGON
ARREN, JOSUK,
ANTZA, EZ ZUEN
ZERIKUSIRIK
IZAN.
ATENTATUAREN
EGILEA,
BISKARRET
IZENEKO BAT, EZ
ZUEN EZAGUTU
ERE EGIN.



ANDRES
BISKARRET
BESTEEK
HIL ZUTEN,
GAL-EKOEK,
HANDIK URTE
BATZUETARA.



HORREK MARTIRI BIHURTU
ZUELARIK, HAREN AURPEGIA
JASAN BEHAR NIK, KALEAK
PAPEREZTATZEN, SANTU
BAT BAILITZAN.



KLIK

TIRA, ORAINDIK EZ
DUT ULERTZEN
ZERGATIK DITUDAN
AMETS HORIEK,
ETA ZERGATIK
JUSTU ORAIN,
HOGEITA BOST
URTE GEROAGO...





GOTZAINAREKIN
EGON ZARA?

BAI, ATZO HITZ EGIN NUEN JESUS
MARIKIN, BAINA EZ DAGO ZER
EGINIK. ESAN ZUEN EGOERA
KONTUAN HARTUTA...



EZIN DUDALA
LANPOSTUAN
JARRAITU.

ULERTZAZU, ERLIJO
IRAKASLE EZKONGABE
BAT HAURDUN, ETA
UMEAREN AITA GIZON
EZKONDU BAT...



EZ DAKIT, ITZIAR, EZKONDUKO
BAZINETE BEHINTZAT,
ZIBILETIK SIKIERA... NIK...

JA!
NAHIAGO
NUKE!



GONZALOK EZ DU
EMAZTEA UTZIKO.
HORI ESAN DIT.
NIK ABORTATZEA
NAHI DU.



ABORTATU?
ETA ZUK...?
ZER...?

KAKATARA BIDALI
DUT. ABORTATUKO
DUDANA GURE
HARREMANA
IZANGO DA.



ZEU ERE... IA
BERROGEI URTE
ITXARON, ETA
AZKENEAN LIATU
HALAKO...



NAHIKOA DA, ANTON. DENEK EPAITUKO NAUTE;
MESEDEZ, EZ EGIN ZUK GAUZA BERA, ZURE
LAGUNTZA BEHAR DUT.

BAI, BAI...
BARKATU.

